



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Probazko Lizitazioak: Lizitazio Elektronikorako Sistemaren berri izan eta menperatzeko modurik onena

- A gutunazala
- B gutunazala
- C gutunazala

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

09

Egiazko lizitazio elektroniko batean parte hartu aurretik, sistema honen berri izateko eta menperatzeko probak egitea gomendatzen dizugu


Eusko Jaurlaritzan komenigarria deritzogu zurea bezalako enpresek probak egin ditzatela egiazko lizitazio elektroniko bati ekin aurretik. Horregatik, probazko lizitazioak eskaintzen dira, erabileratik libre eta erabilgarri une oro, sistemarekin nahi adina alditan trebatzeko. Probazko lizitazio hauek egiazko lizitazio baten ingurune bere-berean egiten dira, beraz, ezinbestekoak dira zuretzat interesgarria den lehiaketa publiko baten aurretik prest egoteko.



Probazko lizitazioak egin aurretik, zure enpresak prest egon behar du Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistema erabiltzeko.

Probazko lizitazio horiek, egiazko ingurune batean egiten direnez gero, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikorako Sistemaren barruan eragiketak egin ahal izateko baldintza tekniko eta administratibo guztiak beteak izan behar dira.

Oraindik ez badituzu beharrezko prestaketa-lanak guztiak egin, lehenbailehen egitea gomendatzen dizugu.



Probazko lizitazioak baliabide bat dira Kontratazio Publiko Elektronikorekin trebatzeko, honako hauek egiten uzten baitute:

- Egiaztatu enpresak zuzen bete dituela Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistema erabili ahal izateko baldintza tekniko eta administratibo guztiak.
- Enpresak eskaintzak kargatu eta bidal ditzakeela, azken batean, egiaztatu zure enpresako ordenagailuak prest ote dauden Lizitazio Elektronikorekin aplikazioa erabili ahal izateko, beharrezkoak diren baldintza teknikoaren eskakizunen arabera.

- Lizitazio aplikazioaren funtzionaltasun guztien berri izatea modu guztiz errealean.
- Prozesuen, segurtasun mekanismoen eta eskaintzen bidaltze ziurtatzearen berri izatea.
- Zure ordenagailutik Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistemaren zerbitzari bidaltzeko izapideak egin eta igortzeko behar den denbora estimatzea.

Enpresek probazko aplikazioak erabil ditzakete lasai asko eta nahi adina espediente eskain ditzakete elektronikoki, lizitazio elektronikoa eskaintzak aurkezteko prozedura gogokoena bihurtu arte.

Egiazko lizitazio elektronikoko baten ingurune berean praktikatzeko modurik onena

Eredu erraz, erabilgarri eta segurua



Probazko bi Lizitazio mota daude eskura zeinahi Enpresa Eskaintzaileentzat:

■ Lizitazio generikoak, erabilgarri betiere.

Proba hauek ez daude ezein kontratazio espedienteri lotuta.


- Lizitazio elektronikoko aplikazioak modu guztiz errealean lan egiten du.
- Oso erraza da A, B eta C Gutunazalen osakeraren ikuspuntutik.
- Hilabetean behin berritzen da, gutxienez.

Adibide gisa, eranstean den irudiak "Enprezentzako erabilera libreko proba (Ekaina)" baten lagin bat erakusten du, 2006ko ekainean zeinahi enpresak erabili ahal izan duena.

■ Kontratazio xede den espediente bati lotutako probazko lizitazioak.

Proba mota hauek Eusko Jaurlaritzak deitutako lehiaketa baten legezko lizitazio epe baten aurretik eta epean zehar sortzen dira eta honako ezaugarri hauek dituzte:


- Lizitazio elektronikoen aplikazioak modu guztiz errealean lan egiten du.
- A, B eta C gutunazalen osakeraren ikuspuntutik, prozesu osoa kontratazio xede den espedienteak eskatutakoaren berbera da.
- Probazko lizitazio hau hainbat alditan berritzen da (2tik 4ra), legezko lizitazio epe baten aurretik eta epean zehar.



Baliatu libre dituzten uneak probak egiteko, aplikazioa behar bezala menderatzen duzula seguru egon arte. Sistema erabilgarri egongo da beti. Ez ezazu eginkizun hau atzeratu egiazko lizitazio bati aurre egin behar diozun egunera arte.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikorako Sistemaren elementu guztien antzera, Probazko Lizitazioen erabilera erabat doakoa da.

Sistema erraz, erabilgarri eta segurua, praktikatzen beharrekoa



Probazko lizitazioa tresna ezin hobea da Kontratazio Publiko Elektronikoa egiteko egoki prestatu zaren egiaztatzeko

Ezaugarriak, konfigurazioa eta hartutako segurtasun konponbideak direla eta, Kontratazio Elektronikoa aurrekusi diren bitarteko digital asko berri-berriak dira. Beraz, beharrezkoa da hainbat baldintza tekniko eta administratibo betetzea, eta zure ordenagailua prestatzeko neurri batzuk hartzea.



Kontuan hartuz probazko lizitazioak Kontratazio Publiko Elektronikoa aplikazioan bertan egiten direla, egiaza daiteke zure enpresak elektronikoki eskaintzak egiteko baldintza guztiak betetzen ote dituen eta zure ordenagailua behar bezala prestatuta ote dagoen.

Eransten den grafikoan zure enpresak egin beharreko eginkizunen multzoa erakusten da, Eusko Jaurlaritzak zure enpresaren jarduerari egokitzen zaion produktu edo zerbitzu bat kontratatu behar duenerako prest egon zaitez. Kudeaketa guztiek izapidetzeko epe bat behar dute, nahiz eta gehienak aldi berean egin daitezkeen; beraz, gomendatzen dizugu ahalik eta lasterren egin ditzazula.

01

Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa eskatu

- Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa eskuratu beharko duzu eskaintza prozesuan parte hartuko duten zure enpresako pertsona guztientzat.
- Instala ezazu Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa zure ordenagailuan, eta egin ezazu sinadura proba bat.

i Informazioa Laguntza

- www.izenpe.com
Egiaztagiri digitalak
 - Erakundearen eskaria
 - Eskariaren inprimakia
 - Herritarren Egiaztagiriaren eskaria
 - On-line aurre erregistrorako inprimakia

Tel. 902 542 542

Informazio guztia 01 inprimakian

02

Egin itzazu administrazio zereginak Kontratisten Erregistro Ofizialean

- Begira eta egiaza ezazu zure enpresak Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duela, eta indarrean dagoen egiaztagiria duela. (Sei hilean behin berritu behar da).
- Zure enpresak Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emateagatik daukan zerbakiak eskuratu behar duzu.
- Egiaza ezazu zure enpresako ordezkariaren ahalordetzeak indarrean daudela.

i Informazioa Laguntza

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

Kontratisten Erregistro Ofiziala:
Tel. 945 01 89 32

Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:
Tel. 012 (EAE)
Tel. 945 01 80 00 (EAEtik kanpo)

Posta elek.: roc@ej-gv.es

Informazio guztia 02 inprimakian

03

Izema eman behar duzu Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistematan.

- Bereiz eta identifika itzazu Kontratazio Elektronikorako prozesuetan parte hartzea nahi duzun zure enpresako pertsonak.
- Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistematan zure enpresaren izena eman behar duzu.

i Informazioa Laguntza

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

Kontratisten Erregistro Ofiziala:
Tel. 945 01 89 32

Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:
Tel. 012 (EAE)
Tel. 945 01 80 00 (EAEtik kanpo)

Informazio guztia 03 inprimakian

04

Presta ezazu zure ordenagailua

- Windows edo Windows-NT eragiera sistema eta Internet Explorer Nabigatzailea dauzkan ordenagailua eduki beharko duzu. (Beste eragiera sistema batzuentzako ere prestatzen ari dira).
- Gaitu itzazu konfiantzako Web orriak eta elementu azaleratuak (Pop-Up).
- Begira eta egiaza ezazu zure ordenagailuan SecretS_DLL.dll liburutegia duzula.

i Informazioa Laguntza

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

- Elektronikoki eskaintza egitea
 - Baldintza teknikoak
 - 10. Eskaintzak kargatzeko eta igortzeko eragiketak behar bezala egiten direla egiaztatzea behar da
 - SecretS_DLL.dll liburutegia deskargatu behar da
 - Microsoften Java makina birtuala

Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:
Tel. 012 (EAE)
Tel. 945 01 80 00 (EAEtik kanpo)

Posta elek.: laguntzape@ej-gv.es

Informazio guztia 04 inprimakian

01

02


03

04



Enpresa batek bere lehenengo Eskaintza Elektronikoa egin ahal izateko derrigorrez bete behar dituen baldintzak.

Zeinahi arazo izanez gero, Internetetik, gure web gunetik lagunduko dizugu
 On-line formazio ekintzen bidez edo gorabeherak konpontzeko sistemaren bidez

Eredu erraz, erabilgarri eta segurua




"Formazio eskaintza" aukeraren barruan, lizitazio elektronikoen prozesu osoaren hainbat on-line erakustalditara sartzeko aukera izango duzu. Animazio horiek prozesu errealki erakutsiko dizkizute eta kasu bakoitzean nola jardun behar duzun jakiten lagunduko dizute. Probazko lizitazioekin praktikatzen hasi aurretik, atal honetan sarzaitzela gomendatzen dizugu.



Orobat, Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistemak erabiltzean gertatu ohi diren gorabehera aruntzen errolda landu dugu.

Gorabeherak sailkatuta dauden pantailaren edo sortzen den errore mezuaren arabera.

Gomendatzen dizugu gure web guneko "Gorabeherak Konpontzea" atalean begira dezazula arazoaren jatorria kezahateko eta egokia den konponbidea aurkitzen saiatzeko.



Zeinahi zalantza edo kontsulta duzula, zoaz Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa

Eusko Jaurlaritzak sortutako Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistemaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak euskarria eta arreta eskaintzen dio euskal Administrazioarekin elektronikoki eskaintzak egiteko prest dagoen guztiari.

Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistemaren Erabiltzaileentzako Arretarako Zentroa honako helburu hauekin sortu da:

- Enpresa bakoitzean Kontratazio Elektronikorekin alderatu erabakia hartzen duten pertsonekin harreman zuzenerako gune zentral bat eskaintzea.
- Aplikazioak erabili ahal izateko euskarria eskaintzea eta gerta litezkeen gorabeherak konpontzen laguntzea.

Zuzenean, Eusko Jaurlaritzak daukan Herritarren Arretarako Zerbitzua, telefono eta posta elektronikoko bidez kontsultak egiteko bidea da.

- **012** telefonoa, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deietarako.
- **945 01 80 00** telefonoa, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako deietarako.
- Internet helbidea:
www.euskadi.net
- Posta elektronikorekin helbidea:
laguntzakpe@ej-gv.es

Gai honi dagokionez, "**Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa**" gure dokumentazioa irakur dezazun gomendatzen dizugu.

